



ZEGAMA KO UDALA

2024KO MAIATZAREN 14AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2024KO APIRILAREN 16KO BILKURAREN AKTA).
- 2.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.
- 3.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. BATZAR OROKORREAN AZTERTUKO DIREN GAIEN ONARPENA
- 4.- JUBILATU EGOITZA BERRIA IZANGO DEN LOKALA EGOKITZEKO OBRAREN ESLEIPEN ERABAKIAREN KONTU EMATEA.
- 5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 6.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Iker Zubeldia Katarain jn. (EH Bildu).

ZINEGOTZIAK

Ainhoa Herrasti Areitio and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

Nagore Arrieta Aranza and. (EH Bildu).

Denis Pérez Apaolaza jn. (EH Bildu).

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen).

Alina Dumitru and. (Zegama Lantzen).



ZEGAMA KO UDALA

Idazkaria, Lierni Asurabarrena Zipitria.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2024KO APIRILAREN 16KO BILKURAREN AKTA).

Aho batez onartzen da aurreko bilkuraren akta.

2.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.

Alkatetza Ebazpen bidez onartutako eta 2024ko maiatzaren 7ko Ogasun Batzordetik pasatako honako faktura zerrenden berri ematen da.

5 zenbakidun fakturen erlazioa (Apirila); guztira 27.597,87 euro.

6 zenbakidun fakturen erlazioa (Apirila2); guztira 68.225,98 euro.

3.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. BATZAR OROKORREAN AZTERTUKO DIREN GAIEN ONARPENA.

Goierri Turismoa S.L.ko administratzaile bakarrak, eta Goierriko Ekimena S.A. sozietateak Administrazio Kontseiluan onartutakoarekin bat, eta prezeptu legal eta estatutarioak betetzeko asmoz, 2024ko maiatzaren 27an Batzar Orokorra ospatuko duela adierazten du, bertaratzeko deialdia eginez.

Batzar Orokor horretan, 2023ko Memoria, Balantzea, Irabaz eta galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioari dagokion proposamena, aztertu eta onartuko da.

Zentzu honetan, Batzar Orokor horretan aztertuko diren gaiak jaso ondoren, Alkateak, adierazitako agirien berri eman eta hauen onarpena egitea proposatzen du.

Proposamena ikusirik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko lau ordezkarien eta EH Bildu taldeko bost ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:



ZEGAMA KO UDALA

Lehen.- Adierazitako 2023. urteko Memoria, Balantzea, Irabaz eta galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioa onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Goierriko Ekimena S.A.ri jakinaraztea.

4.- JUBILATU EGOITZA BERRIA IZANGO DEN LOKALA EGOKITZEKO OBRAREN ESLEIPEN ERABAKIAREN KONTU EMATEA.

Alkateak 2024ko maiatzaren 9an emandako ebazpena azaltzen da honakoaren arabera:

Zenbakia: 03/0524

Zegamako udalerrian jubilatu egoitza berria izango den lokala egokitzeko obrak kontratatzeko bideratu den espedientea ikusirik, administrazio eta tekniko baldintza-pleguetan adierazitakoaren arabera.

Kontratazio egutegia:

1.- Licitazioaren iragarkia kontratazio plataforman: 2024-02-29

2.- Eskaintzen aurkezpena: 2024-03-26 arte, 14:00 orduak.

3.- Gaitasunaren eta kaudimenaren gutun-azalean aurkeztutako administrazio-dokumentazioaren kalifikazioa ("A" artxibo elektronikoa). 2024-09-04 14:00 orduetan.

4. "B" artxibo elektronikoa irekitzea (balio-iritziaren mende dauden proposamen teknikoen memoria teknikoa). 2024-04-17 14:00 orduetan.

5.- "C" artxibo elektronikoaren irekiera egiten da, **ESKAINITZA EKONOMIKOA ETA**

Se da cuenta del expediente incoado para la contratación **de las obras de reforma de local para nuevo hogar del jubilado en Zegama**, de conformidad con el pliego cláusulas administrativas y la documentación relativa a las prescripciones técnicas.

Calendario de contratación:


1.- Inserción de la licitación en la plataforma de contratación: 29-02-2024

2.- Presentación de ofertas: hasta el día 26-03-2024 14:00 horas.

3.-Calificación de la documentación administrativa presentada en el Sobre de capacidad y solvencia (archivo electrónico "A"). 09-04-2024 14:00 horas.

4.- Apertura del archivo electrónico "B" (memoria técnica de las proposiciones técnicas sujetas a juicio de valor). 17-04-2024 14:00 horas.

5.- Apertura del archivo electrónico "C"



ZEGAMAKO UDALA

AUTOMATIKOKI BALIOZTATU DAITEKEEN DOKUMENTAZIOARI buruzkoa. 2024-04-22 14:00 orduetan.

Horren arabera, Kontratazio Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an, kontratazio organoari proposatu zion erreferentziako kontratua honakoaren arabera esleitzea:

IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L. KALE NAGUSIA, 48 - IDIAZABAL (NIF.- B20190674) enpresari esleitzea, 196.591,09 eurotan gehi 41.284,13 euro BEZaren %21ari dagozkionak (guztira, 237.875,22 euro BEZ barne), baldintzen pleguetan eta aurkeztutako proposamenaren arabera.

Proposamenean eta pleguan ezarritako baldintzak (6 hilabeteko egite epea).

Administrazio baldintzen pleguko 17.5. klausulan adierazitakoaren arabera, kontratazio organoak esleipendunari bertan ezarritako agiriak eskatu zizkion.

Agiri horiek aurkeztu ondoren, eta administrazio baldintzen pleguko 18. Klausulan adierazitakoaren arabera, Alkatetza honek, Toki Araubideari buruzko arauak ematen dizkidan aginpideak erabiliz, honako hau ebazten du:

Lehena.- Erreferentzako kontratua esleitzea, hurrengo era honetan:

IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L. KALE NAGUSIA, 48 - IDIAZABAL (NIF.- B20190674) enpresari esleitzea, 196.591,09 eurotan gehi 41.284,13 euro BEZaren %21ari dagozkionak (guztira, 237.875,22 euro BEZ barne), baldintzen

relativo a la PROPOSICIÓN ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN CUANTIFICABLE DE FORMA AUTOMÁTICA. 22-04-2024 14:00 horas.

Conforme a ello, la Mesa de Contratación con fecha 22 de abril de 2024 propuso al órgano de contratación la adjudicación del contrato de referencia a:

A la empresa, IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L. KALE NAGUSIA, 48 - IDIAZABAL (NIF.- B20190674) 196.591,09 euros más 41.284,13 euros correspondientes al 21% de IVA (total, 237.875,22 euros IVA incluido) y en las condiciones establecidas en los pliegos de condiciones y la propuesta presentada.

Condiciones establecidas en la propuesta y en el pliego y plazo de ejecución 6 meses.

Conforme a lo establecido en la cláusula 17.5 del pliego de condiciones administrativas, el órgano de contratación requirió a la persona licitadora, la presentación de la documentación establecida en la misma.

Una vez presentada la documentación, y conforme a lo establecido en la cláusula 18 del pliego de condiciones administrativas, esta Alcaldía, en uso de las facultades que me confieren las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, resuelve:

Primero.- Adjudicar el contrato de referencia a:

A la empresa, IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L. KALE NAGUSIA, 48 - IDIAZABAL (NIF.- B20190674) 196.591,09 euros más 41.284,13 euros correspondientes al 21% de IVA (total, 237.875,22 euros IVA incluido) y en las



ZEGAMAKO UDALA

pleguetan eta aurkeztutako proposamenaren arabera. condiciones establecidas en los pliegos de condiciones y la propuesta presentada.

Proposamenean eta pleguan ezarritako baldintzak (6 hilabeteko egite epea). Condiciones establecidas en la propuesta y en el pliego (plazo de ejecución 6 meses).

Bermearen zenbatekoa: 9.876,22 euro. Importe de la garantía: 9.876,22 euros.

Pleguan eta proposamenean jasotako gainontzeko baldintzak. Resto de condiciones establecidas en la propuesta y en el pliego.

Bigarrena.- Esleipena, enpresa lizitzaileari jakinaraztea. Segundo.- Notificar la adjudicación a la empresa licitadora.

Hirugarrena.- Ebazpena, Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratzea. Tercero.- Publicar la adjudicación en el Perfil del Contratante del País Vasco.

Laugarrena.- Kontratua formalizatzea 15 laneguneko epean, adjudikazio hau jakinarazi den egunetik. Cuarto.- Establecer que el contrato se formalizará en el plazo máximo de 15 días hábiles desde la notificación de la adjudicación.

Bosgarrena.- Ebazpen hau, dagozkien udal departamentuei helaraztea. Era berean, Udaltzarrari jakinaraziko zaio, honek burutuko duen hurrengo ohiko bilkuran. Quinto.- Dar traslado de la presente resolución a los departamentos municipales competentes, así como al Pleno de la Corporación en la próxima sesión ordinaria que se celebre.

Seigarrena.- Ebazpen hau irmoa da eta bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren contra, honako errekurtsio hauek jar daitezke: Sexto.- La presente resolución es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrán interponerse los siguientes recursos:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjapen errekurtsioa aurkezteko Alkateari, hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan. Con anterioridad al inicio de la vía judicial, el/la interesado/a podrá potestativamente interponer un recurso de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. Todo ello conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Bestela, birjapen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko Asimismo, en vez del recurso de reposición, o en el caso de interponerse contra la



ZEGAMA KO UDALA

balu interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsu hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Bestalde, Administrazioak birjapen errekurtsua erantzun gabe utziz gero, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko, birjapen errekurtsua jartzen den egunetik aurrera kontatzen hasita.

Interesdunei legearen arabera jakinarazi dadila."

resolución del recurso, podrá presentar directamente un recurso contencioso-administrativo. El interesado dispone de un plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. El recurso se presentará ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Por otro lado, si la Administración no resolviese el recurso de reposición, el/la interesado/a dispondrá de un plazo de seis meses desde la presentación del recurso para interponer un recurso contencioso-administrativo.

Notifíquese de forma legal a los/as interesados/as."

Ebazpena ikusirik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko lau ordezkarien eta EH Bildu taldeko bost ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, hau berrestea erabakitzen du.

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen zerrendaren berri ematen du:

- 05/0424 erabakia, apirilaren 11koa, Goierriko Hitzari 2024 urteko dirulaguntza onartzea.
- 06/0424 erabakia, apirilaren 11koa, Goierri Irrati Telebistarekin 2024 urterako hitzarmena onartzea.
- 07/0424 erabakia, apirilaren 12koa, Euken Olaziregi Albizuri Txarape 2, 1.ezk etxebizitzan sukaldea berritzeko baimena ematea.



ZEGAMA KO UDALA

- 08/0424 erabakia, apirilaren 15ekoa, 5 zenbakidun fakturen erlazioa (Apirila) onartuz; guztira 27.597,87 euro.
- 09/0424 erabakia, apirilaren 16koa, 2024-KALD-000001-00 zenbakidun Kreditu Txertaketa onartuz.
- 10/0424 erabakia, apirilaren 18koa, Jon Berasategi Lezardite-ri Andraitz, 4 – 3B etxebizitzan sukaldea berritzeko baimena ematea.
- 11/0424 erabakia, apirilaren 29koa, 6 zenbakidun fakturen erlazioa (Apirila2) onartuz; guztira 68.225,98 euro.
- 01/0524 erabakia, Zegamako Toki Alai kiroldegian autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoen hornidura, soberakinak eta instalazioen konpentsazio erraztua dituztenak jartzeko kontratazio espedientea onartuz eta lizitazioari hasiera emanez.
- 02/0524 erabakia, maiatzaren 2koa, Sidi Mohamed Azaoui-ri Olaberria auzoko jaietan furgonetan patata frijituak eta hanburgesak saltzeko baimena emanez.
- 03/0524 erabakia, maiatzaren 9koa, Jubilatu Egoitza berria izango den lokala egokitzeko obren esleipena eginez.
- 04/0524 erabakia, maiatzaren 9koa, Osoko Bilkuraren ohizko batzarra dirako deialdia eginez.

6.- GALDE ERANTZUNAK.

- Izaskun Igoa Arizkorreta zinegotziak (Zegama Lantzen) "Altxa Burua" ekimenaren berri eman du. Zegaman gaia lantzeko bilera informatibo bat egiteko asmoa dagoela adierazi du, Guraso Elkarteari eta Udalarari informazioa zabaltzeko eskaera egingo zaio eta bilera horretarako Udalaren gazteleku berriko lokala erabiltzeko asmoa dute.
- Izaskun Igoa Arizkorreta zinegotziak (Zegama Lantzen) Garmendia pabilloiak ze erabilera edo aktibitate izango duen galdetu du. Alkateak oraindik ezer garbirik ez dagoela erantzun dio, oraindik aktibitatearik ez dela alta eman bertan, momentuz Maratoi eguneko aparkatzeko gunek izango dela.



ZEGAMA KO UDALA

- Izaskun Igoa Arizkorreta zinegotziak (Zegama Lantzen) Udalekuei buruz galdetu du, ea zenbat begirale egongo diren. Aritz Agirre Garikano zinegotziak momentuz 31 begirale apuntatu direla eta zozketa datorren astearten, hilak 21, izango dela erantzun dio.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2024kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/ EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2024.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

udalbatzarreko akta

CSV/EKS:

SINAd35bbb60-572e-464a-8e4b-ed76bf22caf8